



Tolosako hirugarren finalaurrekoan aritu ziren sei bertsolariak, Saroi Jauregi aurkezlearekin. JOSU ARTUTXA

Oihana Iguaran finaleko zortzikotan

Jon Maiak irabazi du Tolosako finalaurrekoa eta ondorioz finalerako txartela lortu du; Iguaran bigarren izan da eta puntuaketagatik finalera sartu da; eta Haritz Mujikak seigarren egin du Tolosan // 4

Euskararen Nazioarteko Egunerako dena prest eskualdean


Hamaika ekitaldi antolatu dituzte herri gehienetan; Galtzaundik proposatutako Hitzolariak ekimena errepikatuko da, besteak beste // 2-3

Asuncionen profesionalak homologazio gabe ari direla salatu dute

TOPAk egindako ikerketaren ondorioak plazaratu ditu; abenduaren 14an batzarra egingo dute Tolosan // 5

Lau eta erdiko finalera iritsi da Miren Larrarte bidaniarra

Binakako Pilota Txapelketan lehen bi postuetan daude Jaka eta Artola; Altuna, berriz, puntuak batu ezinik // 7



euskaltel

ETORRI TOLOSAKO EUSKALTEL DENDARA

ALEX REMIRO eta

NEREA EIZAGIRRE ezagutzera

Abenduak 4, 19:00etan
San Frantzisko, 19 Tolosa

#HITZOLARIAK

Lepautxik

Negoan lepoa babestu gabe ibiltzea.

Xuxta

Siesta motza.

Ilintxa

Txondorra egitean, guztiz egosi gabe dagoen egur zatia, oraindik ikatza ez dena.

Tentejende

Burua besteen gainetik altxata ibiltzen den haundiustea.



Zer egiten du hitzolari batek?

Jendeak aurretik ezagutzen dituen hitzak, esanahi berria hartu dutenak edota hitz berriak proposatu. Hau da:

- Gure herrian edo sektore jakin batzuetan erabiltzen diren hitzak zabaldu eta azaltzea.
- Lehendik ere bazeuden hitzak baina orain esanahi berria izan dezaketenak plazaratzea.
- Hitzen esanahiarekin edo sonoritatearekin jolastuz, hitz berriak sortzea.

Nola zabaldu daitezke?

Plaza digitala. #hitzolariak traola erabili eta zabaldu.
Herriko plazak. Euskararen Egunari bueltan herriz herri egingo diren ekitaldietan zabaldu.

Ekitaldi sorta, Euskararen Egunerako

Eskualdeko herri askotan egingo dute bat gaur, Galtzaundi Euskara Taldeak proposatutako Hitzolariak ekimenarekin.

Erredakzioa Tolosa

Euskararen Nazioarteko Eguna da gaur, eta horren harira eskualdeko herri askotan izango dira ekitaldiak.

Galtzaundi Euskara Taldeak Hitzolariak ekimenarekin bat egiteko gonbita luzatu zien Tolosaldeko herriei, eta erantzun zabalagoa jaso du.

Herri askotan gaur bertan izango dira ekitaldiak, eta beste batzuetan asteburuan zehar egin dituzte. Eskualdea hortaz, ari da hitzekin eta euskararekin jolasean.



Asteasun eta Leaburu-Txaraman herenegun egin zuten bat, Hitzolariakekin. J.A.D.

EGITARAUAK

Abaltzisketa

15:30. Hitzolariak jolasa: eskola kanpoan hitzak txertatzeko buzoia bat jarriko dute.

Aduna

Goizean zehar. Hitzolariak eskolan.
Arratsaldean. Umeak herrian zehar ibiliko dira Altxorraren Bilajolasean, eta ondoren, merienda.
19:00. Kultur aretoan Xabier Leturiaren *Tarrapatan*, pandero baten ibilbide liburuaren aurkezpena.

Alkiza

16:00. Hitzolariak jolasa, plazan edo frontoian.
16:30-17:00. Gaztaina jatea.
17:00. Euskara ikasten ari diren herri-tarrek euren jatorrizko hizkuntzan azalduko dute zergatik erabaki zuten euskaraz ikastea.
Jarraian. Eukalkantak abestuko dituzte herriko musikariek laguntzaz.

Altzo

10:00. Imaz Bertsolariaren Eskolan euskal karaokea, Hitzolarien beroketa eta gaztaina jatea.
18:00. Herriko plazan elkarretartzea, argazkia eta mokadua.

Amasa-Villabona

11:30. Malkar plazan hezkuntza eragileen ekimena Fleming, Zubimusu eta Erniobearen eskutik.
18:30. Malkar plazan herri ekimena. Musika, bertsoak, abesbatza, pintxoak... (Euriarekin Berdura plazan).

Amezketza

15:00. Zumadi eskolako ikasleen ikuskizuna kultur etxean, amaieran *Lau Teilatu* abestuko dute.

Berastegi

14:30. Eskola atarian haurrentzat hainbat gune: erromeria, gaztainak, herri kirolak, euskal jolasak eta taloak.
17:30. Gaztainondo elkartearen merienda eta Hitzolariak.

Berrobi

17:30. Kantujira herrikoia.
18:00. Txokolate jatea eta Hitzolariak ekimena.

Bidania-Goiatz

18:00. Kafe tertulia: garai bateko hitzez eta hauen esanahieiz hizketaldia, liburutegian. Komentatutako hitzak eskola kanpoko kortxoan jarriko dira bi egunez, nahi duenak irakurtzeko edo bestelako ekarpenak egiteko.

Elduain

18:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, kultur etxean.

Gaztelu

17:00. Elkartearen merienda, Gazteluko hitz propioak biltzeko.

Irura

15:30. Plazan ikastolako haurren ikuskizuna eta adierazpena, eta ikastolako haurrek euren hitzak zintzilikatuko dituzte.
Jarraian. Udalaren adierazpena.

16:30. Plazan Hitzolariak lehiaketaren sari banaketa eta herritarrak euren hitzak eramateko aukera.

Ikaztegieta

11:00. Taloak salgai.
11:30-12:30. Pilota erakustaldia, euskal dantzen erakustaldia, Zazpi jauzi dantza eta abestiak.

Larraul

15:00. Saretzea hariarekin eta Hitzolarien jolasa.

Lizartza

17:00. Hitzen zaindaria.
18:00. Kontu kontalaria eta ondoren, afari-merienda.

Tolosa

18:30. Antzerki-bertso ikuskizun inprobisatua. Amaia Agirre bertsolaria-ekin eta May Gorostiaga antzezlea-ekin, Zerkausian.

Zizurkil

15:00. Herrigunean ipuin kontaketa eta Hitzolariak, San Millan ikastetxearen eskutik.
15:15. Zubimusu eta Otañoakoak plazara joango dira, hitzekin lanketa egitera eta harietan hitzak zintzilikatzera.
16:00. Iraitz Lizarragaren ipuin-kontaketa eta Hizkuntzaren Altxorraren Bilajolasa.
16:30-19:00. Herriko elkarteak txandaka, hitzak zintzilikatzen joango dira.
19:00. Amaiera ekitaldia eta zintzilikatutako hitzen irakurketa.

Hirigintzako planetan euskararen zeregina aztertuko dute udalek

Eusko Jaurlaritzak dekretu bat onartu du EAEko Udal Legeak euskarari buruz emandako arauak garatzeko; Tolosaldeko udalek neurri berrietara egokitu beharko dute

Irati Saizar Artola Tolosaldea

Eskualdeko herriek hirigintza plan bat onartu aurretik, euskarari nola eragiten dion aztertu beharko dute. Ez soilik Tolosaldekoek, EAEko udal guztiek egin beharko dute gauza bera. Eusko Jaurlaritzak dekretu bat onartu zuen pasa den astean, EAEko Udal Legeak euskarari buruz emandako arauak garatzeko.

Hirigintzako proiektuek ekologia, genero eta gizarte ikuspegia jasotzeaz gain, hemendik aurrera, eragin linguistikoa ere jaso beharko dute. Berrikuntza horrez gain, hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek lanean euskaraz egitea ezarri dute.

2016an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Udal Legea. Euskara «berezko hizkuntza» izendatu zuen, eta erabilera «normala eta orokorra» ezarri. Lege horrekin hizkuntza politikako eskumen batzuk jaso zituzten, eta dekretuarekin, eskumen horiek nola erabili zehaztu dituzte.

Besteak beste, udal langile, hautetsi, herritar, udalak egin dako kontratazio eta hirigintza planetan izango du eragina dekretuak.

Berritasun «garrantzitsuak» direla eta Tolosaldeko udalei «aukera berriak» irekitzen dizkietela azaldu dute Galtzaundi Euskara Taldekoek. «Hemen ere baditugu etxeko lanak».

EUSKARA LEHEN LERROAN

Dekretuan zehaztu bezala, euskararen aldeko «ekintza argiak» abiatu beharko dituzte udalek, hizkuntza sustatzeaz eta erabilera dinamizatzeaz gain. Hori horrela, udal bakoitzak euskara planak egin beharko ditu, eta irizpide batzuk zehaztu, udalaren barne jardueretan euskararen erabilera hazkorra ahalbidetzeko.

Modu horretan, dekretuan zehatz jaso dituzte honako neurriak: besteak beste, deiak euskaraz hartzea, ziurtagiriak euskaraz edo ele biz ematea eta argitalpenak eta ekitaldiak «gu-



Hernialdeko irudia, artxiboko irudi batean. JON MIRANDA

txienez» euskaraz egitea. Euskara hutsean egin ahalko da, baina ez erdaraz hutsez.

Udalerri bakoitzeko «egoera soziolinguistikoaren arabera» moldatu egingo dituzte hizkuntza irizpideak, baina, dena den, euskara «geroz eta gehiago» erabiltzeko eskatu dute.

LAN TRESNA

«Langileek hizkuntza eskakizuna egiaztatu badute, nahikoa gaitasun aitortuko zaie lanpostuaren berezko funtzioak bi hizkuntza ofizialetan egiteko». Horrela jasotzen du dekretuak. Beraz, langileek egiaztagiria badute, euskaraz ez egiteko arrazoirik ez da egongo. Era berean, EGA ziurtagiria baino handiagoa dutenen kasuan, euskaraz lan egin beharko dutela jaso dute dekretuan.

Hala ere, langile publikoen eta hautetsien hizkuntza gaitasuna bermatzeko beharra izango dute udalek, prestakuntza ezberdinen bitartez.

Bestalde, udalek zenbait zerbitzu beste enpresen bitartez eman ohi dituzte, eta kasu horietan ere, hizkuntza eskubideak berdin bermatu beharko dituzte, udaleko langileak izango balira

Euskararen aldeko «ekintza garbiak» abiatu beharko dituzte udalek, dekretuan zehaztu dutenez

Udalek irizpide batzuk zehaztu beharko dituzte, beraien jardueretan euskara erabilera hazteko

bezala. Hori lortzeko, kontratuetako irizpideetako bat beharko du izan hizkuntzak, eta ondoren, enpresek bermatu beharko dute langile euskaldunak egotea.

BESTE NEURRIAK

Langile publikoen eta hautetsien ahozko zein idatzizko hizkuntza gaitasuna bermatzeko

beharra izango dute udalek, prestakuntza bitartez. Besteak beste, euskara ikasteko aukera jarriko zaie zinegotziei.

Dekretuak nahiz eta bide eman udalei euskara hutsean aritzeko, nola dokumentuetan, hala lan saioetan, zinegotziren batek argudiatzen badu ez duela euskaraz ulertzen, ele biz eman beharko dizkiote agiriak, eta itzulpen zerbitzua bermatu beharko diote bileretan.

Era berean, dekretuak jasotzen duenez, herritarren kasuan haiek eskatutako hizkuntzan eman beharko du zerbitzua udalak. Eta langileak euskaraz ez badaki, bera arduratuko da laguntza eskatzeaz, eta herritarrari ez dio erdaraz eginaraziko.

ERAGIN LINGUISTIKOA

Hirigintza proiektuak onartzera-ko udalek aztertu egin beharko dute euskarari nola eragingo dion: hirigintza planak, azpiegiturak eta horrelako egitasmoak onartu aurretik, eragin linguisti-

koa aztertu beharko dute. Udalak berak egin beharko du analisi hori.

Neurri horrekin, «era negatiboan eragin dezaketen» egitasmoak aztertuko dituzte: hirigintza eta turismo planak, eta merkataritza guneak eta industrialdeak egiteko proiektuak. Arnasguneen kasuan, Tolosaldean kasu, «euskararen erabilera eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak» ebaluatuko dituzte.

Erdalduntzen ari diren herri euskaldunenetan jarri dute arreta, eta hor erantzukizuna izango dute udalek. Galtzaundiren ustez, «inon izatekotan, Tolosaldearen kasuan nabarmena da hirigintzak, beste faktore batzuekin batera, nolako eragina izan duen arnasguneak erdalduntzen: etxe sail handiak egin diren garai berean jaitsi dira euskararen eza- gutza eta erabilera Tolosaldeko herri txikietan».

UDALEN ZEREGINA

Badute lana, beraz, eskualdeko udalek. Idoia Olano Anoeta eta Irurako euskara teknikariak berri «pozgarria» dela azaldu du, «aurrerapausoak ematen ari direla ikusi dugu». Udaletara ere iritsi berri zaie dekretuaren inguruko albistea eta «eseri, ondo irakurri» eta aurrera begira «pau-soak» eman behar dituztela dio. Dekretuarekin «eskumen eta tresna gehiago» dituzte, eta udaletan eginak dauden euskara planetan «moldaketak» egin beharko dituztela argitu du.

Galtzaundik azaldu duenez, dekretuak hiru ardatz azpimarratzen ditu: «udalak aktibatzea, arnasguneak babestea eta elkar-lana hauspotzea». Eta horri forma emateko, «oinarri sendoa taxutzen» ari dira eskualdean: Tolosaldeko Euskararen Mahaia. «Orain arte ikusi gabeko lankidetzaren ereduak lortu nahi du horrek: erakundeak eta eragile sozialak parez pare esertzea, gogoetak eta erabakiak konpartitzea, adostasunak eta desadostasunak jostea, eta baliabideak eta tresnak sinergia bihurtzea».

Oihana Iguaran berriro ere finalera

Jon Maia izan da lehen sailkatua Tolosako finalaurrekoan; Oihana Iguaran eta Beñat Lizaso ere finalean izango dira; Haritz Mujikak seigarren egin du

Imanol Artola 'Felix'

Lehen agurretatik antzeman zen bertsolariak dena ematera etorri zirela Tolosara eta publikoak ere halaxe eskertu zituen, txalo-zar-ta handiekin. «*Karnabal bat bihurtu/dezagun Tolosa*» kantatu zuen Urangak. Tolosaldeko biek berriz: «*kantxan edozer gerta liteke/ta oholtzan zer esanik ez*» amaitu zuen Mujikak, «*hori gera ta horixe/nahi det kale edo bale,/bihurtu errotarritik/osorik irten den ale*» berriz Iguaranek.

IGUARAN HASIERATIK GOGOR

Hamarreko handian bertsolari-erik rol zailetatik kantatu behar izan zuten. Urangak eta Lizasok arrazistaren paperetik kantatu behar izan zuten eta publikoko zenbait zalantza sorrarazi zieten, txaloak jotzeko garaian.

Mujikari eta Urdangarini gehiago kostatu zitzairen, beraiei egokitutako roletik kantatzea. *Gurasoak dira, beraien semeari kotxe-kapota oparitu diote baina, nesken gauza denez, ezkutatzea erabaki dute.* Mujika generorik gabeko oparien zirrikitua lantzen ahalegindu zen, baina hamarreko handian puntu gutxien jaso zuen bertsosaldia izan zen biena.

Aldiz, Iguaranen eta Maiaren bertsosaldia izan zen hamarreko handian epaileei gehien gustatu zitzaiena. *Torturatzaile baten abokatuak dira: «defenda/zagun baina ikus bedi/dela betiko ohitura»* hasi zen Iguaran. «*Torturatzaile bat salbatzea/izan hemengo zein hango/ez da lehena izango eta/ez da azkena izango*» jarraitu zuen Maiak eta beraien papera ongi justifikatu zuten, baina distantzia hartuz aldi berean.

Zortziko txikiari Mujikak eta Urangak ekin zioten. Kiroldegira joan da Uranga lanera joan aurretik eta zinta Mujika jubilatua kendu zion. Elkarrizketa bixia sortu zuten. Mujikak bigarren bertsoa «*seinale ez zarela/lanen nekatzen*» amaitu eta Urangak «*nere partez lanera/joan nahi al dezu?*» galdetu zion. «*Bola igo ari zait/ai, ai, ai, ez, ez, ez/Asunciona eramane/nazazu mesedez*» erantzun zion Mujikak, elkarrizketa itxiz.



Oihana Iguaran amasarra eta Haritz Mujika asteasuarra elkar besarkatzen, Tolosako puntuazioa jakitean. JOSU ARTUTXA

Lizaso eta Iguaranena izan zen txikiko bertsosaldi puntuatuena. *Bikotea dira eta mugikorreko aplikazioko proba batek %5eko bateragarritasuna dutela esan berri die.* «*%5 degu/horixe da koska/ta meritua beste/95a*» kantatu zuen Iguaranek eta elkarrizketa ixteko «*aplikazio hori/lehendik sobran zen/, itzali mobila ta/gu piztu gaitzen*» kantatu zuen azken bertsoan.

MUJIKAK, SEIKO MOTZEAN

Seiko motzean lortu zuen Mujikak bere puntuazio altuena eta Iguaranek soilik lortu zuen bera baino puntuazio altuagoa, ariketa horretan. Amasarrak Urangarekin osatu zuen ofizioa. *Ama semeak, Gabon gaua orain arte elkarrekin ospatu izan dute, baina Urangak esan dio aurten bikotekidearen etxera doala.* «*Ta nola aldatuz doan/zu ez zaude aurtengoan,/hori ondo dago baina nik ere/ezin al det joan*» kantatu zuen Iguaranek, errukia eman nahi duen amaren papere-tik. Urangak «*hor utziko zaitut hala,/nahiz jakin mingarri dala,/zuk zure aita ta ama utzi/zenitun bezala*» erantzun zion. Iguaranek bigarren bertsoan Gabon gauean ez baina Urtezaharra berarekin pasatzeko eskatu zion, baina ahizparenera joateko

erantzun zion Urangak. Iguaranek «*nahiz utzi nauzun aparte/osasuna den bitarte,/izan nahi nuke sortuko duzun/familiko parte*» kantatu zuen hirugarrena.

Mujikak berriz Maiarekin kantatu zuen. *Alderdi bereko bi politikari dira. Hauteskundeko programako puntuak bete ez dituztenez, Mujikak ez du berriz aurkeztu nahi.* «*Lege bat balitz ezingo luke/inortxok aurkeztu*» eraso zion Maiak lehenengoan eta «*utzi izen, utzi kargu,/denak soberan dauzkagu,/lehen kritikatzeko genituenak/bihurtu gera gu*» erantzun Mujikak. Maiak egia eta programa bereizi zituen bigarren bertsoan, eta «*PNV edo Bildu/gezurrak egia hil du/helburu bera daukate denek/xoxak nola bildu*» erantzun Mujikak. Azken bertsoan Maiak «*igual zu zera sartu zarena/leku okerrean*» erantzun zion eta Mujikak elkarrizketa itxi zuen «*zuek segiko horren ondo/zu en gezur zuen tongo/baino ni ez naiz lau urte barru/zerrendan egongo*» kantatu-z.

Puntutan elkarrekin kantatu zuten Mujikak eta Iguaranek. *Hegazkinean, beren albokoak lo hartu du eta komunera joan ezinik geratu dira.* Elkarrizketa polita eta bizia osatu zuten, nahiz

eta amaieran biribiltzea falta izan zitzairen.

Puntutako ariketan Maiak bere umore absurdoari etekina ateratu zion Lizasorekin osatutako ofizioan, sukaldaritza programa bateko epaimahaikoen papere-tik.

KARTZELAN BIKOTEKIDE OHIAK

«*Telefonoak jo du. Begiratu duzu, eta berriz ere zenbaki bera da*» izan zen kartzelakorako gaia. Maiak eta eskualdeko biek bikotekide ohia kokatu zuten telefonoz bestalde. Aldiz, beste hiruren kasuan: Lizasok haurdun dagoen emaztea; Urangak kartzelatik irten berri den alaba; eta Urdangarin aguazilari alkateak deitu dio, seiko motzeko ariketako Ertzainaren autoa gaizki aparkatuta dagoela esanez. Publikoa bereganatu zuen ataundarrak.

Maiak ere publikoa bereganatu zuen eta baita epaimahaikoa ere. Koska ateratu zuten beste bost kideei.

Iguaranek honela kantatu zuen lehen bertsoaren bukaera: «*eten dizkiot e-mail kontuak/mobila blokeatu bai/baina oraindik ez du ulertu/ez dudala hitz egin nahi*». Bigarrenean, «*barkamen eske hasi zen baina/hortarako ere koldarra/beregan*

SAILKAPENA

Beñat Gaztelumendi	506,0
Agin Laburu	501,0
Jon Maia	494,5
Alaia Martin	493,5
Ane Labaka	472,5
Oihana Iguaran	471,0
Beñat Lizaso	469,5
Nerea Elustondo	467,0
Asier Azpiroz	463,0
Iñaki Apalategi	459,0
Jokin Uranga	456,5
Iñigo Mantzisor	453,0
Unai Mendizabal	452,0
Unai Gaztelumendi	447,0
Iban Urdangarin	444,0
Amaia Iturriotz	438,0
Eñaut Martikorena	434,0
Haritz Mujika	432,0

inoiz sinistu izana/da dedan damu bakarra». Azken bertsoa berriz, «*deika jarraitu nahi badu ere/moztuko diot halare/bera geratu da itzalita/eta estaldura gabe*».

Mujikak ere harreman toxikoa-aren gaiari helduz, lehen bertsoa «*sufritzen ari dela badakit/baino ez noa hartzera*» amaitu zuen eta bigarren bertsoa honela kantatu zuen: «*Garai batean gustoko nuen/gustoko nere erregin,/baino gerora eragin zidan/batek daki hainbeste min./Nahiz oroitzen gogo askoak/badauzkadan berarekin,/dena bukatu zen en fin,/nahiz berak deiari ekin./Bera sufritzen ari omen da/ni ere bai berdin berdin,/beraz mesedez bukaera hau/ez gogorragoa egin*». Ariketa honela amaitu zuen: «*aurrerantzean bizitza on bat/opa nahi dizut maitea,/ta espero det zuk niri ere/hori opa izatea*».

FINALEAN

Beraz, gauzak horrela, Maia, Iguaran eta Lizaso sailkatu dira finalera. Finalean, hiru duela lau urteko bost aurpegik errepi-katuko dute: Gaztelumendi, Martin, Laburu, Iguaran eta Maia. Hiru aurpegi berri izango dira: Labaka, Lizaso eta Elustondo. Hirukote horretatik, Labaka da txapelketari udaberrian ekin ziona, maiatzaren 11n Mutrikun. Beste bi bertsolariak, duela lau urte finalerdietan kantatu zuten, udazkenean ekin diote txapelketari.



BABARRUNA ARDATZ

Ibarrako Hauspoa elkarteak babarrun jana antolatu zuen larunbatean. Babarrunaren lehiaketa gastronomikoa, bazkari herrikoia eta arratsaldean kantuan ibili ziren giro petralari aurre egiteko. J.M.



EZKURRA JANGAI

Larunbat goizean Cesar Lema eta Sofia Armenteros adituek hitzaldia eskaini zuten kultur etxean. Ondoren, Goiabe baserriko kideen laguntzaz, Katilutxullo elkartearen, saio praktikoa egin zuten, ezkur irinarekin. J.M.

Profesionalak homologaziorik gabe ari direla salatu dute


TOPA koordinakundeak Asuncion klinikako profesional medikuei buruzko ikerketa egin du eta ondorioak plazaratu zituen larunbatean Trianguloan egindako elkarretaratzean

Itzea Urkizu Tolosa

Iaz jakitera eman zuen TOPAk klinikako hainbat profesionalen lanpostua utzi zutela, eta zentroan aldaketak gertatu zirela. Orain, Gipuzkoako Medikuei Elkargoarekin informazioa berretsi eta gero, salaketa argia egin dute: «Asuncion klinikako hainbat mediku beharrezko homologaziorik gabe ari dira lanean».

Nabarmendu dute, informazio hori guztia eskualdeko ordezkari politikoei helarazten ari direla aspetotan eta, Tolosako, Aiztondo bailarako eta Andoaingo udalera datuok eraman dituzten moduan, Ibarra eta Alegia gaiaz aritzekoak direla laster. Herritarrei begira, berriaz, informazio batzarra eskainiko dute, datorren abenduaren 14an, 12:00etatik aurrera, Tolosako kultur etxean.

Larunbatean, ikerketak emandako zenbait zenbaki zintzilikatu zituzten Tolosako Trianguloa plazan, besteak beste: Osakidetza anestesien eta erreanimazioan aritzen diren espezialisten %100ek titulu homologatua duten bitartean, Asuncionen espe-



Trianguloan larunbatean egindako elkarretaratzean jasotako irudia. I.U.

zialisten %43k dute homologazioa. Halaber, TOPAren aldarri historikoetako bati ere egin diote tarte, eta «Osakidetza Tolosaldearekin duen zor historikoa» gaitzetsi dute, 70 milioi euro exijituz.

Asuncion klinikako enpresa batzordeak ere oharra egin du publiko eta medikuen titulazioen homologazio falta salatu du. Azken hilabeteetan zuzendaritzak aldaketak egin dituela jakinarazi dute, nagusiki, «ebakuntzako zerbitzuan eta barne medikuntzan». Aldaketa horiekin «gaixoen osasun arreta eta segurtasuna bermatzea gero eta zailagoa egiten zaigu, eta egunen batean zerbait

larria gerta daitekeen beldur gara», esan dute.

Langileek ohartarazi dutenez, «ebakuntza zerbitzuan erizaintzako pertsonalari, zehazki, lan ordutegia aldatu nahi diote, ordu presentzialak murriztuz. Guardia lokalizatu sistema gehiegizkoa proposatzen dute, non jaiegun eta gaueko txandak ez diren aurreikusten. Barne medikuntzan ere, medikuen ordu presentzia murriztu dituzte, larrialdietako medikuei lan karga gehituz. Soldaten murrizketa zorrotza inposatuz, osakidetza langileen irabaziekiko aldea oraindik ere gehiago areagotzen da».



DANTZARIEGUNA ZIZURKILEN

Artea (Altzo), Anitz (Anoeta), Alurr (Ibarra), Oinargi (Villabona) eta Bukalai (Zizurkil) dantza taldeak aritu ziren larunbatean Zizurkilgo Dantzari Egunean. Trikitilari eta Zizurkilgo erraldoiaren laguntzarekin kalejiran ibili eta gero, Intxaur frontoian talde bakoitzak bere emanaldia eskaini zuen. J.M.



ATERKIPLEAN KANTARI

Hileko azken larunbateroko hitzorduan aterpean aritu ziren, euriagatik Tolosa Kantarikoak. Tontokalen hileroko zita zintzo bete, eta kalez kale ibili ondoren, buelta amaitzerako, Itoizen *Lau teilatu* kantua grabatu zuten, EITB maratoiaren alde. I.U.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

12. jardunaldia

Patatas Gz. S. - Laskorain	3-3
Lauburu - Cuellar	1-1

Saikapena

1. Tafatrans	27p
7. Lauburu Ibarra	21p
9. Laskorain	16p

GIPUZKOAKO SENIOR MAILA

Gipuzkoako Kopa final-laurdenak

Eguzki Garoa Taberna - Ordizia	0-5
Laskorain - Eskoriatza	5-4
Tolosala - Sanpedrotarra	0-10
Idiazabal - Samaniego Orixe	3-0

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

11. jardunaldia

Tolosa Eskubaloia	21
Dominicos Zaragoza	24

Saikapena

1. Trapagaran	21p
9. Tolosa Eskubaloia	9p

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

12. jardunaldia

Tolosa CF - Berriozar	3-1
-----------------------	-----

Saikapena

1. Bizkerre	28p
12. Tolosa CF	12p
14. Itaroa Huarte	4p

HIRUGARREN MAILA

16. jardunaldia

Urduliz - Tolosa CF	0-0
---------------------	-----

Saikapena

1. Portugalete	35p
17. Tolosa CF	17p
20. Ariznabarra	6p

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

11. jardunaldia

Tolosa CF - Añorga	3-2
--------------------	-----

Saikapena

1. Leintz Arizmendi	31p
2. Tolosa CF 'B'	27p
3. Urola	25p

ERREGIONAL PREFERENTEA

12. jardunaldia

Tolosa CF 'B' - Danena	1-4
Billabona KE - Iintxa	3-0

Saikapena

1. Beasain	31p
4. Billabona KE	22p
6. Danena	18p
15. Tolosa CF 'B'	9p

LEHEN ERREGIONALA

12. jardunaldia

AAxular Isturin - Intxurre	2-0
----------------------------	-----

Saikapena

4. Intxurre	16p
-------------	-----

GORENGO MAILA

11. jardunaldia

Mutriku - Intxurre	1-1
--------------------	-----

Saikapena

3. Intxurre	15p
-------------	-----

Saskibaloia

GIZONEZKOEN 1. MAILA

8. jardunaldia

BKL Senior Mutilak	54
Redline Mekanika TAKE	71

Saikapena

1. Tecnum - Askatuak	6-2
2. Urgatzi	6-1
5. Redline Mekanika TAKE	5-2

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

6. jardunaldia

Ostadar	62
TAKE	48

Saikapena

1. Zast Neskak	5-1
2. Antigua - Luberrri	5-1
5. TAKE	4-2

76 eskalatzaile lehian

Gotzon Burgos Barrio izan da Oargiko X. Boulder Txapelketako irabazlea helduetan

Erredakzioa Tolosa

Oargiko X. Boulder Txapelketa Herrikoian 76 eskalatzailek parte hartu zuten, horietatik helduen mailan 32 eta gazteetan 44. Iaz baino heldu gehiagok eman zuten izena aurtengoan, eta lehen hiru sailkatuak Gotzon Burgos Barrio, Pablo Portugal Ormaechea eta Jose Ramon Vidaller Axpe izan ziren.



Helduen txapelketaren une bat. JON MIRANDA

Gazteetan, hau da, 16 urte azpikoetan, iaz baino zertxobait gutxiagok parte hartu zuten, eta

lehen hiru sailkatuak Eñaut Uson, Maddi Agirre eta Manex Goenetxea izan ziren.

Txapelak banatu dituzte

Ion Ander Izagirre XXVIII. Frontenis Txapelketaren finalak egin ziren larunbatean

Erredakzioa Berrobi

Ion Ander Izagirre XXVIII. Frontenis Txapelketaren finalak jokatu ziren larunbatean Berrobiko frontoian. Lehen partida binakako mutilena izan zen eta Erik Sagastume eta Mikel Goitiak 30-14 irabazi zioten Aitor Erauskin eta Julen Apeztegiari.

Ondoren txapelketa mistoa jokatu zuten, eta Nagore Lizardi eta Niko Artola izan ziren irabazleak, 30-25 gailenduz Xabi Zubiria eta Mireia Lezeari. Binakako



Frontenis txapelketako sari banaketa. ATARIA

nesken txapelketan, Aran Rodas eta Mireia Lezeak 30-17 irabazi zioten Enara Lasarte eta Itziarri. Azken finala mutilena banaka

izan zen eta hor txapelduna Niko Artola izan zen, bigarren txapela jantziz, Xabier Zubiriari 30-28 irabazi eta gero.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Ile-apaintzailea.

Tolosako Irrika ile-apaindegiak esperintziadun ile-apantzaile bat behar du, arratsaldeetan lan egiteko. Lanaldi erdia. Interesatuak deitu 943508493 telefono zenbakira.

Garbiketa lanak.

Tolosan esperientzia duen pertsona bat behar dugu elkarre bat garbitzeko. Lanaldi erdia, goiz eta arratsalde, asteazkenetik astelehenera, baita jai egunetan ere. Ezinbesteko baldintza da esperientzia izatea. Interesatuak deitu 943 67 06 26 telefono zenbakira.

Iraitz Arrospidek Tokiorako gutxieneko marka lortu du

Erredakzioa Amasa-Villabona

Iraitz Arrospide billabonatarak, 2020an Tokion (Japonia) jokatu diren Olinpiar Jokoetarako gutxieneko marka ezartzea lortu du, Valentziako Maratoian, 2:11:00ko denborarekin (2:11:30 da gutxienekoa). Bere aurreko

marka 2 minutu eta 23 segundotatik hobetu du.

Ondorioz, Tokion jokatu den maratoian, Espainiako Selekzioarekin aritzeko hautagaiekin bat izan beharko luke Arrospidek. Hala ere, oso zaila izango da Tokion izatea, zazpi hautagai baitaude hiru postutarako.



Miren Larrarte lau eta erdiko finalera iritsi da

Pilota mistoarekin ari da lehian bidaniarra; Salsamendiri irabazi dio finalerdietan

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Lehen mailako finalak erabakita geratu dira Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketan. Pilota mistoarekin, Larrarte bidaniarrak Miriam Arrillaga aginarraren aurka jokatu du abenduaren 15ean, Barakaldon. Aurten berrikuntza nagusia da pilota mistoko txapelketa, eta Su Berri klubeko bi pilotarien artean izango da finala.

Finalerdiak Galdakaon jokatu ziren, eta bertan Larrartek 13-18 irabazi zion Laia Salsamendi uhartearrari. Partida nahiko ore-



Finalerdietako partidak Galdakaon jokatu ziren. EMAKUME MASTER CUP

katua izan zen eta eskarmentuak eman zion finalerako txartela Larrarteri. 13 urteko uhartearra izan da, ezbairik gabe, txapelketako ezustekorik handiena eta finalerdian ere gertu izan zuen garaipena, etorkizun oparoa duela

berretsiz. Izan ere, urduritasunak erasotuta edo, alde nabarmena lortu zuen Larrartek lehen txanpa horretan, 4-11 ere aurreratu. Ondoren arriskatu egin zen Salsamendi eta 13-16ra gerturatzera lortu zuen.



Euskal Herriko Kopan parte hartu duten IKT Tolosaldeako kideak. ATARIA

Emaitza «oso onak» Kopan

IKT Tolosaldeako igerilariak Euskal Herriko Kopan lehiatu dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Euskal Herriko Kluben Arteko Igeriketa Kopa izan da jokoan asteburuan Usabal igerilekuan, eta IKT Tolosaldeak emaitza «oso onak» lortu ditu, Nerea Pagola taldeko teknikariak azaldu duenez. Mutiletan bigarren postua eta nesketan bosgarrena eskuratu dituzte, eta orokorrean hirugarrena. Euskal Herriko zortzi talde indartsuenek parte hartu dute lehiaketan.

Mutiletan orain arte lortutako postu onena berdindu dute. «Ez genuen postu hori aurreikusten, beraz, oso pozik», esan du Pagolak. «Nesketan gure zalantzak bagenituen, baja batzuk izan ditugulako taldean, eta igerilari gazteak sartu dira. Bosgarren postua oso ondo dago, eta gainera puntu bakarrera geratu gara laugarrenetik».

IKT tolosaldearentzako txapelketa «oso berezia» dela azaldu du Pagolak. «Taldea jokatzeko diren bakarrak dira. Egutegiko proba guztietan parte hartu behar da eta proba bakoitzeko bi igerilari parte hartzen dute, eta egiten dutenaren arabera puntuak lortzen dira. Asteburu guztian lortutako puntuak banatzen dira eta bigarren eguneko arratsaldean lortzen da azken sailkapena». Normalean lehiatzen direnean, igeriketan «nahiko bakarkako ikuspegia» izan ohi dutela dio, «baina asteburu honetan ez, ikuspegia erabat taldekoa da».

Zenbait marka aipagarri ere egin dituzte txapelketan. Eneko Garmendiak 50 eta 100 metro bizkar probetan irabazi zuen (25,98 eta 55,61); Eneko Barriolak 200 metro bizkarretan (2.03,04); Maddi Barriola 200 metro tximiletan 17 urte azpiko Euskal Herriko markatik oso gertu geratu zen 2.19,63 eginez; 4x50 metro estiloetan mutilek Espainiako Absolutu Txapelketako gutxieneko marka lortu zuten, eta taldeko hainbat marka ere hautsi ziren.

Binakakoan, Jaka eta Artola lehen bi postuetan daude

Erredakzioa

Bi jardunaldi jokatu dira Binakako Pilota Txapelketan, eta Iñaki Artola ezustekoa ematen ari da, Erik Jaka aurreikusitako bezala dabil, eta Jokin Altuna lehen puntua lortu ezinik. Elkarren aurka jokatu zuten ostiralean Altunak eta Jakak, Amezketan. Bi pilotariak Zazpi Iturri elkartetik ateratakoak izanik, biak zeuden etxean. Garaipena, ordea, lizartzarrentzat izan zen, 22-17. Lau pilotariak euren mailan aritu zi-

ren, eta hori, atzean Zabaleta nagusi izan zela esatea bezala da.

Iñaki Artola eta Ander Imaz lanerako eta ezustekorako daude txapelketa honetan. Hori bi jardunaldietan argi geratu da. Lehenengoan dizdira handirik gabe egin zuten lan, baina 22ra iristea lortu zuten. Bigarrenengoan lanari ikuskizuna gehitu zioten, eta 22-13 irabazi zioten Urrutikoetxea eta Olaizola II.ari. Errebotetik gertu eduki zuten atzelari bizkaitarra, eta aurrelari goizuetarra, pilotari begira, jokoan ezin

sartuta. Bi garaipen hauekin, Jaka eta Artola sailkapen nagusiaren goiko aldean daude. Altuna III.a, berriz, azken postuan, zortzigarrenengan, dago.

Hurrengo jardunaldian, Artola-Imazek Bengoetxea VI.a-Mariezkurrena II.a izango dituzte aurkari, ostiralean, Tolosan. Jaka-Zabaletak larunbatean jokatu dute Iruñeko Labriten, Ezkurdia-Martijaren aurka. Altuna-Galartzak Irribarria-Rezutarren aurka jokatu dute Eibar-ko Astelenan, igandean.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



LAUGARREN URTEURRENA

Xabier Ioldi Mujika

Ataun, 1956-06-10
2015-12-02

Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak han dituenak.
Nekez uzten du bere lurra
zuhaitzak, ez bada abaildu eta oholetan.

Nekez ahaztuko zaitugu, gure **Xabi**.
Beti egongo zara gure sentimenduan.

ATAUNEN, 2019ko abenduaren 3an



ASTEARTEA, 2019KO ABENDUAK 3
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 03

AGENDA

Deialdiak

Tolosalea. Euskararen Eguneko ekitaldiak bigarren orrialdean.
Tolosa. Buru bihotzez elkartaren batzarra, 19:00etan, kultur etxean.
Tolosa. *Mientras que dure la guerra* filma, Leidoren, 20:30ean.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Elkarrizketap (Vera Alonso)
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:15. Leihotik begira (Aduna)
22:45. Ricardo Arregi sari banaketa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Ignacio Olarraaga Aramburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

ZORION AGURRAK



ZORIONAK

Enara. Joan den igandean, abenduak 1, Enarak 8 urte bete zituen. A ze bizkotxo goxoak egin genituen! Muxupotoloak. Etxekoak.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, Elena Egiguren komunikazio ez bortitzaz, Erakutsiz ikasi Fleming ikastetxeko haurrekin, eta amaitzeko eskualdeko musikari baten proposamena.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Egunko erdiko orduetan 6-7 gradu izango ditugu. joko dute goia termometroek. Goizean hodei asko, euria baztertu gabe, eta eguerditik aurrera ostarteak irekiko dira.

Bihar. Termometroek koska polita egingo dute gora, 11-13 graduan joaz goia. Zerua ere argiago agertuko zaigu.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

**Argazkia bi egun lehenago
ekarri mesedez**

37. Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdiak agur esan dio aurtengoari; Topic-en 10. urteurrena dela eta eginiko amaiera ekitaldian Karlos Argiñano sukaldaria izan da omendu nagusia.

Bukatu da aurtengoa



Topic zentroan egin zuten larunbatean amaiera ekitaldia, eta bertan omenaldiak egin zituzten. IÑIGO ROYO



Titiriteros de Binefar taldekoen kalejiraren une bat. ITZEA URKIZU

Erredakzioa Tolosa

Nazioarteko Txotxongilo jaialdiak ipuinen mundura eramaten gaitu irudimenaren eta harizko bizidunen laguntzarekin, eta aurtengoan ere bete du bere egitekoa, gazte-txoei nahiz helduei zuzendutako hainbat lan ikusteko aukera izan delarik.

37. urtez ospatu da Titirijai, eta Topic zentroak Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak hamargarren urteurrena bete du aurtengoan. Bada, urtemuga bereziaren harira, amaiera ekitaldi berezia egin zuten larunbatean Topic zentroan bertan. Aurretik, Erdi Aroko kalejira egin zuten Titiriteros de Binefar taldeko kideek, eta jendetza inguratu zen euren gaita, eta dantzan eta jolasean jarri zituzten guztiak.

Amaiera ekitaldiari dagokionez, omenaldiak egin zituzten, eta Karlos Argiñano izan zen omendu nagusia, «haren telebista saioan Topic-eko txotxongilok presentzia handia hartu ohi dutelako». Sukaldariarekin batera, hainbat erakunde publikotako ordezkariak ere egin aipamena. Txotxongilo eta antzerkigintzaren izenean topa eginez amaitutzat eman zuten aurtengo Titirijai jaialdia.

